



2002/06/28ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko maiatza

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK %0,9 JAITSI ZIREN 2002KO MAIATZEAN

Urte arteko hazkunde-tasa (2002ko maiatza, 2001eko maiatzaren aldean) %1,0koa izan zen

2002ko maiatzean, Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,9 beheratu zen Euskal AEn, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko maiatza, 2001eko maiatzaren aldean) begiratuz gero, %1,0koa izan da kostuen goratzea; aurreko abenduaren aldean, berriz, %1,6koa izan da lehenengo bost hilabeteetako tasaren igotzea.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia maiatzeko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Lehengaien kostuen jaitsierak (%-1,6) maiatzean indize orokorrak izan duen ibilbidea markatu du. Izan ere, indizearen beste osagaiak (lan-eskuaren kostuak) ez du aldakuntzarik izan hilabeteko aldi horretan. Hala ere, urte arteko aldian, lan-eskuaren kostuak %4,0ko igoera izan dute; lehengaien kostuek, berriz, %1,1koa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera desberdina izan dute maiatzean: %1,8 beheratu dira lehenaren kostuak, eta %0,9 bigarrenarenak. Aldeak, era berean, urte arteko bilakaeran gertatu dira, zeren bi azpisektore horietako lehengaien kostuek, maiatzean, %-1,3ko tasa lortu baitute *eraikinak* atalean eta %-0,3koa *obra zibila* atalean, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko maiatzean, hauek izan dituzte jaitsierarik handienak prezioetan: *beira* (%-2,7), *leherkariak eta gasak* (%-1,7) eta *petroliotik eratorriak* (%-1,6), besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenagoak ageri dira kontsumitutako produktuen artean: *pinturak eta bernizak* (%6,0), *zementu artifiziala* (%5,0), *laneko arropak* (%4,7), *makineria erabilirako osagarriak* (%4,6) eta *metalezko bestelako gaiak* (%4,3), besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA		2002KO MAIATZA		
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,8	-0,9	1,0	1,6
ERAIKINAK	118,0	-1,1	0,8	1,3
OBRA ZIBILA	117,4	-0,5	1,4	2,6
LEHENGAIEN KOSTUA	111,4	-1,6	-1,1	0,1
ERAIKINAK	111,5	-1,8	-1,3	-0,5
OBRA ZIBILA	110,9	-0,9	-0,3	1,8
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:



Eustat

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta
Tel.: 945 017 505. Faxa: 945 017 501.
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es